



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

Jagoba Manterola Ruiz
Mikel Gereka Zelaia
José María Alzuri Vertiz
María Izaskun Altxu Ariztegi

2016ko uztailaren 4an, 11:30an, Ohiko Osoko Bilkuran elkartzen dira Iturengo Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. María José Bereau Baleztena —Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Miguel José Belarra Tellechea. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

1. AURREKO BILKURAKO AKTAK ONETSI.

Udalburuak galdetu du zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dien deialdiarekin batera banatu ziren aurreko 4 Bilkurako aktei. Inork ez du azalpenik egin eta aho batez onartu dira aktak.

2. OBRAK EGITEKO LIZENTZIA ESKAERAK.

J.C.E.A.k lizentzia eskatu zuen pistzina eraikitzeke 2 poligonoko 415 partzelan — Pioinekoborda— (lurzoru urbanizaezina). Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legearen 117. artikulua arautzen duenarekin bat etorritz, aho batez erabaki da:

1. Aldeko txostena ematea obrari, erreka ura erabiliko lukeela kontutan hartuz.
2. Pistzinak eraikitzeke lizentziak arautzeke irizpideak prestatzea (lurzoru mota, neurriak, zerbitzuak, etab.), Planeamenduko Arau Subsidiarioetan ez dagoela arautua kontutan hartuz.

3. ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA. 2 POLIGONOKO 513 PARTZELA.

Aztertu da Planeamendurako Arau Subsidiarioen antolamendu xehakatu determinazioetako aldaketa, eraikigarritasuna handitzeko Iturengo 2 poligonoko 513 lurzatian. Carpintería Echeverría SL enpresa da espedientearen sustatzailea. Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legearen 92.5, 98.2, 80, 79 eta 74. artikuluekin bat etorritz, aho batez, erabaki da:

1. Planeamendurako Arau Subsidiarioen aldaketari hasierako onespina ematea.
2. Akordio hau argitaratzea Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Foru Komunitatean editatzen diren egunkarietan, hilabete bateko epean jendaurrean egoteko.
3. Erabaki hau jakinaraztea sustatzaileari.

4. MENDIKO LANAK.

2016ko aurrekontu orokorrean kreditu aldaketak egiteke 1 zenbakia duen espedientea aztertu ondoren, aho batez erabaki da:

1. Hasierako onespina ematea kreditu aldaketa egiteke 1 zenbakia duen espediente honi (kreditu gehikuntza):



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

Gastuak. Dotazioa gehitzen zaion aurrekontu partida:
1-4121-69000 Baso lanak 6.372,05 €

Finantzaketa:
1-1510-60900 Biltegiaren eraikuntza -3.686,39 €
1-7508002 Diru laguntza baso lanak 2.685,66 €

2. Espedientea jendaurrean jartzea 15 eguneko epean.

Lanen aurrekontua 4.084,34 eurokoa da (gehi BEZa) eta Sasoi Eraikuntzak SLri eman zaio egiteko ardura.

5. 2015EKO KONTUAK.

Udalak aldeko txostena eman zuela eta espedientea jendaurrean egon den epean ez dela erreklamaziorik aurkeztu kontutuan hartuz, 2/1995 Foru Legearen 242. artikuluekin bat etorriz, 2015eko kontuak onetsi dira aho batez.

6. ZENBAIT ESKAERA.

1. Herriko bestetan salmenta postuak jartzeko eskaerak daudela ikusirik, gaia arautzea erabaki da eta hauek dira adostutako arauak:

- Postua jartzeko baimena sinatuko die alkateak aurretik saltzaileei edo atrakzioa jarri nahi duten guztiei.

- Prezio hauek kobratuko dira eguneko: salmenta postua, 10 euro/eguna; tiro-pitxon eta janaria saltzen duten postuak, 50 euro/eguna; ohe elastikoak eta antzeko atrakzioak, 30 euro/eguna. Azkeneko hauek Latsagako bidean dagoen parkean kokatu beharko dira.

- Baimenak kontrolatzeko arduradunak izanen dira Mikel Gereka, Izaskun Altxu eta alkatea.

2. J.J.E.V.k lizentzia eskatu zuen pasabidea (badoa) jartzeko *Apeztegia* etxeko garajejan. Gaia ez dago arautua Iturenen eta ordenantzen ereduak aztertzea erabaki da.

3. I.B.A.k Eskolako gela bat eta Udaletxeko ganbara eskatu ditu, ludoteka zerbitzua emateko uztaila eta abuztuan. Eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da ganbara erabiltzeko baimena ematea, erantzukizun zibileko aseguru hartzeko baldintzapean.

4. Abarun Aterpetxeko arduradunek eskatu zuten baimena etxeko ate gainean dagoen kartela kendu, "Aurtizko Ostata" jartzen duena, eta "Aurtizko Aterpea" jartzen duen berria jartzeko haren orde. Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da "Aterpea", "Aurtizko Aterpea" edo "Abarun Aterpea" jartzen duen kartela jartzeko baimena ematea, baina dagoen kartela kendu gabe.



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

5. F.E.A.k baimena eskatu zuen ardien purinak botatzeko komunalean. Udalbatzak oniritzia eman du 3 poligonoko 282 B partzelan botatzeko, beharrezkoak diren baimenak lortu eta gero.

7. ALKATETZAREN EBAZPENAK.

Alkateak emandako ebazpen hauen jakinaren gainean geratu da Udalbatza:

- 2016ko maiatzaren 6koa, J.A.ri baimena eman ziona, Ameztiko bidean 2 kurba zabaltzeko eman zitzaion lizentziaren hasiera-epea luzatzeko.
- 2016ko maiatzaren 11koa, Iturengo 2 poligonoko 512 partzelan ibilgailuak eta erremintak gordetzeko nabea eraikitzeke lizentzia eman ziona M.S.G.ri.
- 2016ko maiatzaren 12koa, Gas Navarra SAri lizentzia eman ziona, hasierako proiektuan sartu gabe dauden kanalizazioko 3 zati berri eraikitzeke Latsasa Auzoan.
- 2016ko ekainaren 3koa, 1 poligonoko 10 partzelan (Latsaga Auzoa) eraiki duen familiabakarrako etxebizitza lehen aldiz erabiltzeko eta okupatzeko lizentzia eman ziona M.D.M.ri.
- 2016ko ekainaren 15ekoa, Lindutx Baztan SLk jarri duen 33/2016 zenbakiko administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Nafarroako Gobernuari jakinaraztea erabaki zuena.
- 2016ko ekainaren 17koa, hasiera batez onetsi zuena 3 poligonoko 22 partzelako lerrokadurak eta sestrak aldatzeko xehetasun azterlana.
- 2016ko ekainaren 28koa, P.M.ri lizentzia eman ziona, 166 metro karratu bereizteke Iturengo Latsaga auzoan dagoen 1 poligonoko 11 partzelatik. Bereizketaren arrazoia da bereizitako lursaila Iturengo Udalari ematea, Latsagako U.E. 2ko birparzelazioa eta urbanizazioa aurrera eraman ahal izateke sinatutako hitzarmena kunplituz.
- 2016ko ekainaren 28koa, *Hiruantsonea* etxeko leihoa atean bihurtzeko lizentzia eman ziona F.A.ri.
- 2016ko ekainaren 28koa, C.A.ri lizentzia eman ziona, *Iñarrea* etxeko atzealdean losa jartzeko 18 metro karratuko azalera.
- 2016ko ekainaren 30ekoa, 2016ko lehenengo (1/2016) aurrekontu aldaketa prozedurari hasiera eman ziona.

8. HERRIKO GAIEI BURUZKO INFORMAZIOA.

1. Agiri hauen jakinaren gainean geratu da Udalbatza: Kantauriko Ur-Konfederazioak 2016ko apirilaren 27an emandako Ebazpena, terraza estaltzeko baimena eman ziona M.C.L.ri; Kantauriko Ur-Konfederazioak 2016ko maiatzaren 10ean emandako Ebazpena, J.C.E.ri baimena eman ziona, ura hartzeko *Matxolza errekatik*; Kantauriko Ur-Konfederazioak 2016ko maiatzaren 10ean emandako Ebazpena, Gas Navarra SAri baimena eman ziona, hasierako proiektuan sartu gabe dauden kanalizazioko zati berriak eraikitzeke Latsasa Auzoan; Kantauriko Ur-Konfederazioak 2016ko maiatzaren 24an emandako Ebazpena, M.S.G.ri baimena eman ziona Iturengo 2 poligonoko 512 partzelan ibilgailuak eta erremintak gordetzeko nabea eraikitzeke; Herri eta Lan Osasuneko Institutuak egindako ur-analisen emaitzak; Nafarroako Administrazio Auzitegiaren 1.293 Ebazpena, M.C.A.k jarritako errekurtsoa onartzen ez duena; Abeltzaintzako zerbitzuak bidali dituen esplotazioen erregistroan izandako mugimenduak —R.U.ren alta, R.A.n aldaketa eta J.C.E. eta J.M.M.ren bajak—; “*Tren Txikito*”ri buruzko erakusketa datak.



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

2. Udalak egur loteak *Asurdi* parajeen markatzeko asmoa zuen, eta eskatzeko epea zabaldu zuen apirilean. Eskaera gutxi egin ziren eta aho batez erabaki da eskaera haiek baliogabetzea eta lote berriak eskatzeko epea irekitzea, *Arrantzelai* parajeen oraingoan, pago egurra.

9. HERRIAREN TXANDA (GALDE-ESKEAK).

Ez da galderarik egin.

Eta bertzerik ezean, 13:30a direnean, alkate andreak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.